

HITZ BITAN

ROBERTO DE INOCENCIO PSIKOTERAPEUTA

«Drogak kontsumitzen dituzten nerabeei ulertu egin behar zaie»

Gorane Agirre | BILBO

Roberto de Inocencio psikoterapeuta eta psikodramatistak *Nerabe gaur egun* hitzaldia eskaini zuen, atzo, drogamenpekotasunei buruz Bilbon egiten ari diren jardunaldietan.

Nerabezaroa, egun lehen bezala, krisialdi bat dela dio De Inocenciok. Baina, egungo adin txikikoen kasuan, inguruko gizarte aldaketek krisialdi hori larritu egiten dutela; horrek neska-mutilei antsietatea sortzen diela, eta antsietatea baretzeko drogak kontsumitzen dituztela uste du. Hori dela eta, familiak nerabe horiek «ulertzea» aldarrikatzen du.

■ Gaur egun nerabe izatea zer da?


Aurreko belaunaldietakoekin alderatuz gero, egungo nerabeek bizi dituzten presioak eta gizarte aldaketak oso ezberdinak dira. Familia barruan alda-

ketak izan dira; emakumea lan merkatuan sartu da; askok 18 urterekin autoa dute, eta lehenago motorra; ez dute ezkondu beharrik sexu-harremanak izateko; Internet bidez ligatzen dute...

■ Beraz, gazteek nerabezaroko ohiko zailtasunei, eta egungo gizarte aldaketei erantzun behar diete.

Hala da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak nerabezaroko aldaketei egin behar die aurre; hau da, familiako, gizarteko, hormonetako eta gorputzeko aldaketei. Baina, horiez gain, gizartean gertatzen ari diren aldaketak ere gainditu behar ditu. Gurasoak, bestalde, egungo munduan berkokatzen ari dira, beraien sasoikoarekin zerkusirik ez duelako.

Gaur egun, gurasoek ikasi ahala, nerabeak beraiek ere ikasten ari dira, aldaketa azkarren aurrean ez dute gidaririk,



XOUSE SIMAL

eta askotan beren gurasoei irakatsi egin behar diete. Era berean, gurasoek ez dute beren seme-alabengandik ikasi nahi. Azkenean, guztiek, aita-amek eta seme-alabek, antsietatea pairatzen dute; eta norberak bere burua defendatzeko, edo errealitatea ukatzen du, edo ez dio ezeri jaramonik egiten.

Aldaketa guzti horiek sortzen dioten antsietatea baretzeko gazteak droga kontsumitzen du. Gaur egungo nerabeek badituzte baliabide ekonomikoak droga kontsumitzeko; aurreko belaunaldietakoek izan ez genituenak.

■ Horren aurrean gurasoek nola jokatu behar dute?

Drogak erabiltzeko nerabeak

DROGAK

«Aldaketek sortzen dien antsietatea baretzeko drogak hartzen dituzte»

izan dezakeen beharra ulertu egin behar dute gurasoek. Baina, ez dute drogez baliatzeko irizpide bera izan behar.

Lehendabizi, gurasoek ulertu egin behar dute nerabeak gaur egun bizi duen egoera. Horretaz jabetu ostean, adin txikikoen antsietatea areagotuko duten faktoreak edo faktore berriak sortzea saihestu behar dute. Hau da, inguru sozialak eta familak ez dute nerabezaroak sortzen duen krisialdi larritu behar.

■ Belaunaldien arteko hutsuneak gurasoen eta seme-alaben artean sortzen duen ulertu ezina gainditu ahal dela uste duzu?

Gaurko nerabeak hezten ari diren gurasoak XIX. mendean sustraitutako baloreen emaitza dira. Beraz, ulergarria da balore etiko, moral eta kultural horien arteko distantzia ikaragarria izatea. Baina ez da gaindiezina.

EUSKARA

Arabako Errioxako euskararen aldeko bizikleta martxa antolatu dute gaurko

Tiki-Ttaka Arabako Errioxako euskara elkarteak bizikleta martxa antolatu du gaur, urtero legez. Bederatzigarren urtea da euskararen aldeko bizikleta martxa hau antolatzen dutena, eta aurreten hiru zutabetan irtengo da. Lehena Bastidatik irtengo da, 15:30ean; bigarrena, Billarretik, 16:30ean; eta azkena Bianatik, ordu berean. Zutabe guztiak Asan elkartuko dira, 18:00etan, Oionerako bidea hartuz. Han, 18:30ean, askaria egingo dute eta dantzaldia izango da, festa amaitzeko. Oiongo San Bizente ikastolako haurrek jarri diote leloa aurtengo bizikleta martxari: *Euskara gainean gorpilen gainean*.

NAFARROAKO ESPETXEA

Espetxea jartzeko Iruñean leku bat aurkitzeko eskatu dio Batzarrek UPNren Gobernuari

Batzarrek mozio bat aurkeztu du Nafarroako Legebiltzarrean, UPNren Gobernuari eraiki nahi den espetxe berri horren kokalekuak Iruñea izan behar duela adierazteko. Batzarre alderdiaren arabera, «egokiagoa» litzateke espetxe berria Iruñean egitea; eta ez, Gobernuak nahi duen bezala, Izarbeibaren. Batzarrek dioenez, nahiz eta egungo espetxe ereduaren kontra egon, espetxe berri bat eraikitzekotan, Iruñean izan beharko luke: «Espetxeak urte asko daramatza Iruñean, eta ez da logikoa erantzukizun hori beste herri batetara eramatea, bertako herritarren nahi ez dutenean, gainera». Nafarroako jende gehiena Iruñean bizi dela nabarmentzen du, gainera, Batzarrearen mozioak.

EPAITEGIAK

Nafarroako Gobernuak eta Jaurlaritzak akordioa sinatu dute Madrilekin, epaitegiak arratsalde ere irekitzeko

Espainiako Justizia Ministerioak justiziaren erreformarako akordio bat sinatu zuen, atzo, zazpi autonomia erkidegoko Justizia sailburuekin. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ere sinatu dute justiziaren erreformarako zortzi puntuko akordio hori. Akordio horrek, besteak beste, epaitegiak arratsalde ere irekitzea aurreikusten du.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

EITBko langileak lurretan egindako kontzentrazioa.

HELIKOPTERO ISTRIPIUA

EITBko langileek hildako lankideak omendu dituzte

EITBko 350 langilek kontzentrazioa egin zuten atzo, Iurreta eta Miramonen, astelehenean helikoptero istripuan hildako hiru lankideekiko omenaldi gisa. Langileak *Lan istripu gehiago ez* zioen pankartaren atzean bildu ziren, Iñaki Pangua, Ruben Cortijo eta Roberto Arenasen heriotzak gogoratzeko. Iurretako kontzentrazioan Andoni Ortuzar eta Bingen Zupiria EITBko eta ETBko zuzendariak ere izan ziren. Bitartean, *Deia*-ko Santiago Yaniz argazkilaria larri dago oraindik, «egonkor» dagoen arren. Gurutzetako erietxeek atzo adierazi zuten, baina, ez da haren osasunari buruzko parte berririk kaleratuko, aldaketarik ez dagoen artean.

GARTZAINGO HILKETA

Tiro egin zutenak bi izan daitezkeela diote perituek

Bi forentsek eta balistikako peritu batek deklaratu zuten, atzo, Gartzaingo hilketa dela-eta Iruñeko Entzutegian egiten ari diren epaiketari. Perituek adierazi zuten, Juan Jose Maioren kontra tiro egin zutenak bi pertsona izan daitezke, eta ez bakar bat, orain arte uste izan den bezala. Diotenez, tiroak distantzia ezberdinetatik egin ziren, eta horrek esan nahi du edo bi lagunek egin zutela tiro, edo hiltzailea oso iaioa dela eskopetarekin.

KIROLA

Gipuzkoako 36.400 haur eta gazte parte hartuko dute eskola kirolaren udako kanpainan

Eskola kirolaren udako kanpainan Gipuzkoako 36.400 haur eta gazte parte hartuko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak haien esku jarri duen eskaintzari jarraituz. Udako kanpaina ekainaren 18an hasi eta irailaren 9an amaituko da, eta 6 eta 16 urte arteko haur eta gazteek parte hartu ahal izango dute antolatzen diren ekimeneetan. Luis Bandres Gazteria eta Kirol diputatuak atzo iragarri zenez, guztira 77 kirol biltzen ditu eskaintza horrek, Gipuzkoako hainbat herritan egingo direnak.

TEKNOLOGIA

Teknologia berrien gizarteratze berdindua jarri du helburutzat e-Gipuzkoa behategiak

E-Gipuzkoa behategiaren lan ildoak teknologia berrien gizarteratze berdindua lortzea, eta on-line bidezko gestio administratiboaren zabaltzea izango dira, atzo Roman Sudupe aldun nagusiak eta behategiko zuzendari Joaquín Villak azaldu zuten.